


EL CORREO

Territorios

Elkarren zurtz ez garen artean



'Zurtz' liburuaren azala.



Iraitz Urkulo

Seguir

Larunbata, 14 martxoa 2026, 00:17

Comenta

Guardar

Compartir

Euskal literaturan azal gogorretako liburuak desagertzeko bidean dauden honetan, zorionez Denonartean argitaletxeak oraindik formatu sendo eta dotore horri eusten dio bere nobedade askotan; Yolanda Arrietaren 'Zurtz' gazte eleberria, kasu. Itziar Domblásek preseski nerabeengan pentsatuz sortutako azalean, izenburua letra moreekin

irudikatuta dago, grafiti bat balitz bezala. Eta niri komikietakoa gogorarazten didan estilo batean marraztuak, bi pertsonaia agertzen dira: Kati eta Gari.

Kati da eleberriko protagonista. Hamabi urte ditu eta «zurtz» hitza daramaten esaldien bilduma egiten du. Nerabe guztiak bezala, zalantza eta beldurrez beteta dago. Zeharo sentibera eta minbera da. Garrasi isilean ari da arreta eta maitasun eske. Munduan bere lekua aurkitu nahi eta ezinean. Gari «aitona berria» du. Aitona zenaren anaia bikia da egiatan, umezurztegi batean hazia eta, familia biologikoa berriki aurkituta, Kati eta haren gurasoekin bizi dena etxeko ganbaran. Laurogei urte izanik, adineko gizona da, baina ez horregatik zaharra. Itxura bohemioa du, ilea motots batean bilduta darama, eta zazpi belarritako ditu, munduari eman dizkion itzuliak adina. Ondasun guztiak motxila bakar batean kabitzen zaizkio.

«Adimen handi baten jabe izatea ez da nahiko munduan kabitzeko»

Kati ez da nerabe arrunta, ordea. Adimen handi baten jabe da. Hala ere, ez du opari moduan bizi. «Adimen handi baten jabe izatea ez da nahiko munduan kabitzeko». Horra liburu honek uzten digun irakaspenetako bat. Izan ere, zailtasunak ditu harreman iraunkorrei eusteko: zaintzaileak, lagunak, eskolak... Batzuetan besteek alde egiten diote; besteetan, bera da besteengandik ihesi dabilena. Burua abiadura bizian doakio beti, informazio gaindosia kudeatzeko ahaleaginean. Jakin-min aseezina du, eta xehetasunei adi dago beti, ia obsesiboki. Babestuko duen iragazkirik gabe, Katiri nekeza zaio mundua bere konplexutasunean bereganatzea. Galdera gehiegi erantzun ziurrik gabe. Agian zintzoegia da bere buruarekin, besterik ez.

Zurtz Yolanda Arrieta. Denonartean, 2025. 143 orrialde

Adimen handia eta sentsibilitate handia lotuta omen doaz maiz. Katirengan bat egiten dute. Hori berez ez da arazo. Ez, behintzat, norbere barnean tsunamia edo urakana sortzen nabaritu orduko egoera

baretzen asmatuz gero. Buruan datu eta ideia gehiegi pilatuz gero, burmuina lehertzeko arriskua handia da eta. Horregatik, Gari hartuko du helduleku, inork ulertua sentitzen ez den Katirentzat ezinbesteko konplizea. Beste norbaitentzat norbait izatearen premia asetzero datorrena. Kati bezala, Gari nortasunez dibergentea da. Baina enpatia handikoa eta tratu errazekoa ere bai. Babesleku gozoa bihurtuko zaio berehala.

Liburuaren azalean agertzen direnez gain, kapituluz kapitulu Katiren familia osoa deskubrituko dugu: Aitor neba eta haren harrera-alaba, Jeni; Jon aita, medikua eta larrialdietako arduraduna; Maddi ama... Irakurtzen hasi aurretik nik neuk pentsatu nuenaren kontra, eleberri hau ez da aitona-iloben arteko abentura liburu bat, maitasun istorio eder bat baizik, non familiako kideek etengabe elkar deskubritzen eta berraurkitzen duten. Maitasuna haien arteko harreman sare osora zabaltzen da.

Haur jaioberriak mojek kudeatutako umezurztegieta-
tornuan uztea beste aukerarik ez zuten emakumeen
historia isildua ezagutarazten digu

Bistan da Yolanda Arrietak ezin hobeto ezagutzen dituela gazteak literaturaren bitartez liluratu eta irakurketara erakartzeko bideak. Ez du alferrik estilo zuzen eta bizia erabili, itzulingururik eta edergarririk gabea, baina oso emozionala. Hunkigarria ere bai zenbait pasartetan. Nire ustez, Katik lehen pertsonan kontatutako atalek indar berezia dute, neskatoarenganako samurtasuna eragiteraino. Testua esaldi gutxietako paragrafo ugarik osatzen dute, eta kontaketa zehar naturaltasun osoz txirikordatzen dira eguneroko ekintzak, iraganeko gertakizunak, oroitzapenak eta gogoetak.

Gaiaren aldetik ere lan originala da, fikzioaren bidez haur jaioberriak mojek kudeatutako umezurztegieta-
tornuan uztea beste aukerarik ez zuten emakumeen historia isildua ezagutarazten baitigu. Gazte eleberri baterako ezohiko gaia zalantzarik gabe; inola ere ez desegokia, ordea. Adimen handiko gaztetxo protagonista bezain berezia, euskal literaturan behintzat.

Liburu zintzoa da 'Zurtz', errealitateari leiala, ez baititu bizitzaren zailtasunak ezkututzen. Min, ziurgabetasun eta beldur askok zeharkatzen dute istorioa, nahiz eta horiek beti agerikoak ez izan. Kontakizunak erakusten digunez, bizitzan zurtz sentitzeko hamaika arrazoi daude, eta nork berea du. Garik dioen moduan: «Denok gara zurtzak, denok falta dugu zerbait: dirua, etxea, osasuna, denbora, afektua, laguna, aita, ama edo arnasa. Hori aitortzeko ezinak bihurtzen gaitu pobre». Agian horregatik pertsonaiek onberatasunetik egiten diote aurre beren eguneroko partekatuari, eta halaxe ulertzen dituzte beren arteko harremanak ere. Hori dela-eta, ziur nago gazte askori bihotz-pizgarria egingo zaiela Yolanda Arrietaren eleberri berriaren irakurketa.